

Euskarazko hiztegia eta gramatika 2014rako osorik Interneten jarriko ditu EHUK

Unibertsitateko Euskara Institutuak egingo duen gramatika hizkuntzaren entziklopedia izatea nahi dute

NAGORE VEGA
Donostia

EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuak Sareko Euskal Gramatika eta Egungo Euskararen hiztegi osoa sarean jarriko ditu 2014. urtean. Hiztegiaren zenbait letra dagoeneko jarrita daude web orrian (www.ehu.es/eeh). Gramatika lantzen datorren hilean hasiko dira, eta lehenbailehen sarean jartzen ahaleginduko dira. Guztira, sei urteko beharra izango da, baina emaitzak lehenago ikusten hasiko dira erabiltzaileak.

Atzo eman zuten proiektuaren berri Pello Salaburu, Ibon Sarasola eta Patxi Goenaga EHUko katedradunek, Juan Ignacio Perez Iglesias errektorearekin batera. Salaburu, Sarasola eta Goenaga dira proiektuaren zuzendariak. Egitasmoa «guztiz originala» dela nabarmendu zuten, ez euskaraz eta ezta munduko beste inongo hizkuntzatan ere ez baitago gramatika eta horrelako hiztegi osorik sarean.

Sareko Euskal Gramatika, gramatika bat baino gehiago, hizkuntzari buruzko entziklopedia izatea nahi dute. Gramatika guztiek bezala, fonetika, fonologia, morfolo-



Pello Salaburu, Ibon Sarasola eta Patxi Goenaga proiektuaren zuzendariak, atzo. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

gia eta sintaxiari buruzko deskribapenak jasoko ditu. Horrez gain, lexikografia, hizkuntzaren historia, jabeakuntza eta prozesamendua, euskararen egoera eta erabilerak datuak ere bilduko ditu. Sarean kontsultatzeko diseinutako gramatika izanik, testuei grabazioak, mapak eta argazkiak erantsiko dizkiete. «Gaur egungo euskarara mintzatuari buruzko informazio zabala izango da, eta historian ere oinarrituko da, gure idazleek idatzi dituzten libururik aipagarrienetako datuak denon eskura jarri», azaldu zuen Goenagak.

Proiektuaren lehen atala den

gramatika horrek, Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren ikerketa proiektuetarako diru laguntza lortu du: 320.000 euro. EHUk 150.000 euro jarriko ditu, erakunde pribatuekin lortutako akordioen ondorioz 140.000 euro hitzartuta dauzkate dagoeneko, eta beste zenbait iturritatik 180.000 euro lortuko dituzte. Guztira, 790.000 euroko aurrekontua dute.

HIZTEGIA EZ DA ARAU-EMALEA. Gramatikaren informazioa hiztegiarenarekin lotuta egongo da bi proiektuak osatzen doazen heinean.

Egungo Euskal Hiztegiak hainbat atal izango ditu. Egungo prosa-

ko -2000. urtetik hasita, bai liburu eta bai BERRIA egunkariako eta *Herria* aldizkariako- testuak bilduko ditu, erabilera arrunteko hitzak, hitz teknikoak, gramatika hitzak eta historiako informazioa.

Zati bat dagoeneko sarean dago, *f, g* eta *h* letrak. *F* letratik zergatik hasi diren argitu zuen Sarasolak: «Arrazoia praktikoa da, *f* letra *a* letra baino askoz ere laburragoa da, zailtasunak ikusi eta hobetzen joateko balioko digu».

Hiztegia arau-emalea ez dela nabarmendu dute zuzendariak, hizkuntzaren joerak ikusaraztea dela helburua. Orain arte, 80.000 adibide bildu dituzte.

Nafarroako Odol Bankuaren kudeaketa txarra salatu du NaBaik

XAN HARRIAGUE
Iruñea

Nafarroa Baiko talde parlamentarioko ordezkarien arabera, kontrerasana dago Nafarroako odol emaila kopuru handiaren eta herrialdeak pairatzen duen odol eskasiaren artean. Azken asteetan, RH negatiboa duten odolaren erreserbak oso apal daude, batez ere, A eta O motetan. Koalizio abertzaleak dienez, egoera «oso larria» da, eta kudeaketa desegokiari egotzi dio.

Salaketaren berri emateko. Asun Fernandez de Garaialde, Maria Luis Mangado eta Txentxo Jimenez Osasun Batzordeko NaBaiko ordezkariak prentsurrekua eskaini zuten atzo. Kezkatuta daude arazoa orain aste batzuk hasi zelako, eta azken hamarkadan behin baino gehiagotan errepikatu delako.

Egindako salaketaren arabera, odol eskasiaren ondorioz, RH negatiboa duten gaixotzen, larrialdizko ebakuntzak besterik ez dituzte egiten Nafarroako osasun sisteman, eta, gainerakoak, atzeratu egiten dituzte. Bertze irtenbidea, eriei RH positiboa duen odola ematea da, baina kasu horietan hartzaileen baimena beharrezkoa izaten da, ondorioak izan ditzakeelako. Asun Fernandez de Garaialdek zalantzak jarri du egoki den protokoloa betetzen den odola biltzeko orduan. «Ez bada horrela, lege hauste larri baten aitzinean geunduke».

Egoera ikusita, NaBaik Maria Kutz Nafarroako Gobernuako Osasun kontseilariaren agerraldia eskatu du Nafarroako Parlamentuan. Txentxo Jimenez arabera informaziorik ez da ematen, eta egoerak azalpenak eskatzen ditu. «Nafarroako 30.000 odol emaila gertatzen denaren berri eman behar zaie», azaldu du, «Egoerak noiztik datorren duen jakin nahi dugu, zer neurri hartuko dituzten konpontzeko, eta kudeaketa hobetzeko nola egingen duten».

GOBERNUAREN ERANTZUNA. Nafarroako Gobernuak erantzun du erraneko egoera ez dela hain larria. «Odol eskasia gutxitan gertatzen da bertzeko erdidegoekin alderatuz, beraz erran daiteke gure kudeaketa ona dela». Arazoa ez du ukatzen; RH negatiboko nahi baino odol gutxiago dutela onartzen du. «Erreserbak behera egin dute, ospitaleen eskara %23 emendatu delako urte hasieran». Odol eskasiaren aurrean, NaBaiko ordezkariak Nafarroako osasun agintariari leporatu diete, ez emaila propio, odola emateko eskaria egin izana. Baina kasu honetan eskaria egin dutela esan dute, eta posta zerbitzuak egin duela kale.

Frantziak «berriz ere» euskara bazter utzi duela salatu du Behatokiko zuzendari Paul Bilbaok

Frantziako Parlamentuak hizkuntza gutxituei buruzko zuzenketak atzera bota dituela eta, kritiko da

ERREDAKZIOA

Frantziako Parlamentuak, Konstituzioa aldatzeko egiten ari den saioetan, hizkuntza gutxituei buruzko bi emendakin atzera bota zituen herenegun. Horren harira, Hizkuntza Eskubideen Behatoki-

ko zuzendari Paul Bilbaok Frantziari egotzi dio «berriz ere» euskara eta gainerako hizkuntz gutxituak bazter uztea. Emendakin biek «gutxienekoak» asetzeko besterik balio ez bazuten ere, Parlamentuak horiek atzera botatzea aski larria da da Behatokiko zuzendariarentzat.

«Berriz ere zartakoa eman diote euskarari», salatu du. «Noiz izango da Frantziako Asanbladaren zuzenbidea egokia bertako errealitate linguistikoaz edota herritarren berdintasunaz hitz egiteko?». Paul Bilbaoren arabera, osteguneko saioan, hainbat diputatuk «lotsagabeki eta ezjakin» jokatu zuten, gainera, auziaren aurrean. Inola-ko begirunerik erakutsi gabe mintzatzea egotzen die.

UMP Herritarren Mugimenduarren Aldeko Batasuna alderdiko 49 diputatuk bultzatu zuten, Konsti-

tuzioak hizkuntz gutxituak aintzat hartzeko emendakinetako bat. Frantziako Konstituzioaren 53. artikuluari beste atal bat eranstea proposatu zuten. Aldaketa hori egingo balitz, Frantziak Hizkuntz gutxituei buruzko Europako Ituna berresteko ahalmena izango luke. Beste emendakinak, Konstituzioaren bigarren artikulua aldatzeko eskatzen zuten, modu horretan, Frantziako ondare diren erregio hizkuntzek errespetua jasotzeko.

Emendakin horiek, Paul Bilbaoren ustetan, zerbaiten seinale izan dira. «Oso argi geratu da Frantziako Asanblada oharu dela gaiari behar bezala eutsi behar zaiola», azaldu du. «Frantziako hizkuntza gutxituen afera ezin da gehiago luzatu eta irtenbide juridiko-administratiboa eman behar zaio lehenik», ohararazi du.

OIARTZUNGO UDAL IKASTOLA PATZUERGOAN
ordezkapen lanak egiteko lan poltsa osatu nahi dugu

Beharrezko baldintzak:

- EGA edukitzea
- Haur Hezkuntza espezialitateko diplomatura edukitzea

Baloratuko da:

- 0-3 etapan esperientzia
- Formazio osagarriak

Bida! zuen curriculumak urtarilaren 30a baino lehen helbide honetara: bulegoaouip@ouip.ikastola.net